

SSI Taldea profesionalen osatutako enpresa-taldea da, eta autonomiari eta gizarte-babesari dagokienez gabeziak dituzten pertsonen eta beren familiek, gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen edo larrialdi-egoeran daudenek dituzten gizarte arloko premiei erantzun erabatekoa emateko sortu zen.

Hasiera batean, Etxean Arreta Zerbitzua kudeatzea zen bere jardunbidea eta, bertatik, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonentzako zerbitzuetara hedatu da, gaixoaaldiaren osteko aldietan emateko zaintzak barne. Bestetik Profesionalen Gaiakuntza eta zahartzearen, kronikotasunaren eta mendekotasunaren arloan lerketa eta Berrikuntza Proiektuen garapenean murgildu da.

Sektoreko enpresa onenekin lehiatzen den eta gizarte-ekimeneko beste enpresa batzuentzako erreferentziakoa izango den enpresa gisa aitortua izan dadin lortu nahi du, bere jarduerak irmotasunez berritu eta dibertsifikatzen dituena.

Bereizgarri egiten duten balioen artean bere zerbitzuetan erakusten duen profesionaltasuna, ingurunearekiko gizarte-konpromisoa eta Taldeko kide diren pertsonen konpromisoa adierazten ditu.


Planteamendu horiekin bat etorritik, aitzindaria izan zen gizarte-zerbitzuen sektorean Kalitatea Kudeatzeko Sistema bat txertatzeari dagokionez; sistema hori hobetuz, hedatuz eta erreferentziakoa nazioarteko araudiko bertsio berrietara egokituz joan da.

Halaber, Ingurumena Kudeatzeko Sistema bat gaineratu zuen, inpaktu negatiboak arintzeko eta jarduerak jasagarriak egiteko bere kezka aurrera eramateko borondatearen euskarri izateko.

Egun, honako konpromiso hauek azpimarratzen ditu:

- Erakunde publikoetan ezarritako kontratuetatik eta hitzarmenetatik eta bere bezero eta interes-taldeen asebetetzeetatik eratorritako betekizunak betetzea: zerbitzuak kontratatu edo hitzartzen dituzten edo finantzatzen dituzten erakundeak, arretaren arloko pertsona hartzaileak, prestakuntza parte hartzen duten pertsonak, beste gizarte-zerbitzu eta osasun-zerbitzu batzuetako profesionalak;
- Aplikagarri diren legezko eta arauzko betekizunak betetzea, ingurumena kudeatzeko arauditik eratorritako direnak barne, garatutako jardueren ondorioz;
- Erakundearen jardunaren barnean kutsadura prebenitzeko jardun onak betetzea eta, ahal dela, jardun horiek bere zerbitzuaren xede diren etxe edota espazioetara hedatzea.
- Emandako zerbitzuak eta horien kudeaketa etengabe hobetzea, helburu horri begirako berrikuntza barne;
- Ingurumen arloko eginahala etengabe hobetzea.

Bilbo, 2022ko maiatzak 15



Gerentzia